

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

9.zk 2015 • 5e



PLATERO Y TU
CORREOS

OTXANDIOKO PLAZA AZPIAN

 Iñaki Pereda García

 Txelu Angoitia / Iñaki Pereda García

Zergatik indusketa arkeologikoa Plaza Nagusian?

Hiriguneen lur-azpiak gure iraganaren legatu garrantzitsua gordetzen du. Esku-hartze arkeologikoetan hainbat material berreskuratzen da (zeramikak, burdinak, hezurak, txanponak...) eta gure iragana berreraikitzeke ezinbesteko artxibategia dena eratzen duten eraikuntzen eta jardueren aztarnak dokumentatzen dira. Orain arte ezkutuan egon diren eta gaur egun erregistratuta eta dokumentatuta dauden elementu ugariak, otxandiotarrek denboran zehar egin duten lanaren eta eguneroko bizimoduaren benetako lekukotza dira.





laz egindako lan arkeologikoen ezaugarri nagusia, plaza Otxandioko Alde Historikoko Gune Arkeologikoaren (Multzo Monumental izendatua 1994ko irailaren 9ko agindu bitartez, 194 zenbakiko EHAA) barruan zegoela da eta, batez ere, urbanizazio proiektuak haren lur azpian eragina zuela.

2014ko abuztua eta abendua bitartean egindako esku-hartze arkeologikoaren helburua egin beharreko lanen ondorioak jasango zituzten lurren ondare edukia ebaluatzea zen. Otxandioko Hiribilduaren Ondare Arkeologikoa ezagutzeko aukera paregabea zen.

Gaur egun, plaza, hiribilduaren jatorriari eta bilakaerari buruzko datuak jasotzeko leku hoberenetakoa da. Kontuan izan behar da XVII. mendera arte ez zela plaza aipatzen hasi, hau da, une horretara arte, egotekotan, gaur egungoaren erabat desberdina den fisonomia izango zuen.

Lehenengo balantzea

Plaza Nagusian aurrera eramandako jarduketa arkeologikoari esker, Hiribilduaren hiri garapenean garrantzi handia duen gunearen ezaugarri fisikoak ezagutu ahal izan ditugu. Lan horien bitartez Otxandioko inguru horren bilakaera historikoa eta ezagutu izan dituen eraikuntza etapak dokumentatu ahal izan dira. Epealdi hauek jasotzen dira:

Erdi Aroa

Aurkikuntza harrigarrietakoa, hiribilduaren hegoaldearen muga gisa erabili izan zen defentsarako foso edo “cava” bat izan zen. Horrelako lanak ohikoak ziren gazteluak eta hiribilduak babesteko, baina hori aurkitzea benetako berrikuntza izan da Otxandioren kasuan, ez zegoelako horri buruzko inolako datu



dokumentalik edo bibliografikorik. Hiribilduekin erlazionatuta zeuden eta urez bete zitezkeen fosoak dagoeneko dokumentatuta dagoen fenomeno dira Euskal Herriko beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan edo Araban, baina Bizkaian aurkitzen den bigarrena baino ez da. Garai horrekin erlazionatutako betelanak eta zutabeak jartzeko zuloak ere hauteman dira.

Aro modernoa

XVI. mendean hiri eraldaketa prozesu garrantzitsua hasi zen. Fosoa estali egin zen eta, ondorioz, eliza inguruaren eta hiribilduaren arteko komunikazioa hobetu egin zen, aurretik bi gune horiek bananduta zeudelako. Plazan estali egin ziren aurretik zeuden irregulartasun batzuk, zurezko eraikin batzuk altxatu ziren eta zanga batzuk egin, okupatutako gunea berriro ere drainatzeko.

XVI. eta XVII. mendeen artekoak dira jauregi baten zimendatzearen aztarnak. Zimenduek Erdi Aroko foso zaharraren parte bat hartu zuten. Dirudienez, 1629an dokumentatu zen eta, Iturrizar historiagileak adierazten duenez 1640an eraitsi zen "Martínez de Uriarteren dorretxea" zen.

XVII. mendean bide zaharra zerbitzu barik geratu zen, eta haren lekuan burdin eraldaketa tailer bat altxatu zen. Horren erakusgarri, burdin minerala erretzeko bi kubeta edo labe dira.

XVIII. mendearen inguruan, egungo Vulcano iturritik gertu, udal lonja bat eraiki zen. Kanpoaldean harlanduzko horma eta harrizko oinarri laukizuzenaren gainean zurezko egitura eramailea duen eraikin mistoa da.



Indusketaren ikuspegia plazaren iparraldetik.



Argazkiaren erdialdea, "dorretxe" baten zimendatzearen aztarnak, eta aurrealdean, udal lonja izan zitekeena.

Aro garaikidea

Aurreko aroaren amaieran hiri aldaketa prozesu handia hasi zen berriro. Aurreko egiturak erabilera barik utzi ondoren, eraldaketa lan garrantzitsua egin zen. Euspeneko hormen bitartez lur terraza handia eraiki zen. Gaur egun gozatzen dugun plazaren aurreko lanak dira. Epealdi horretan hainbat motatako jarduerak aurkitu dira, labe txiki bat edo zezenketak jasotzeko zutabeak sartzeko zenbait zulo bezalako aztarnen bitartez.

Hedapen lanak

2014ko abenduaren 20an eta 21ean bisita gidatuak programatu ziren indusketa arkeologiko lanetara. Herriko Udalak bultzatutako bisiten helburua testuinguru estratigrafiko azpimarragarrienak "in situ" erakustea zen, udalerrriaren historiaren parte bati buruzko datu berriak ematen dituztelako. Aldi berean, hedapen programa horren barruan, ebidentzia arkeologiko interesgarrienak modu didaktikoan erakusten zituen eta panelez osatuta zegoen multzoa instalatu zen.

Ikerketa arkeologikoa

Ikerketa arkeologiko lanen hasieran, Teresa Campos Lópezek (GAKOA KULTURA ETA ONDAREA) eta Gianluca Catanzaritik (3D GEOIMAGING) zuzendutako Plazaren prospekzio geofisikoa (Georadarra) egin zen. Jarduketa horiei esker egin beharreko lanak hobeto planifikatu ahal izan ziren.

Halaber, ikerketaren parte gisa, Fidel Navarretek aztarnategiaren testuinguru estratigrafikoen dokumentazio fotogrametrikoa egin zuen. Lan horri



“Cava” edo Erdi Aroko fosoa.

esker zehaztasun handiagoz erregistratu dezakegu gure lan prozesua, eta horrek ustiatutako gunearen 3D berreraikuntza izateko aukera ematen digu.

Gaur egun, berreskuratutako dokumentazio eta material guztiak aztertzen ari gara, etorkizunean emaitza zehatzagoak eman ahal izateko. Hau da, laborategian egin beharreko lan asko falta da.

Amaitzeko, adierazi behar dugu, plazaren urbanizazio lanen barruan, Otxandioko Udalak, 2015eko apirillean, aurretik aztertu gabe zegoen plazako gune batean Gerra Zibileko zenbait material agertu zela jakinarazi zigula. Aurkitutako material horiek azalerako testuinguru nahastuan zeuden.

Iñaki Pereda García

GAKOA KULTURA ETA ONDAREA Koop. Elk. Txikia